

**ZIFREN ETA DATUEN TXOSTENA, VITORIA-
GASTEIZKO UDALAK INDARKERIA
MATXISTAREN INGURUAN KONTU EMAN
DEZAN**

2018ko urtarriletik urrira

**VITORIA-GASTEIZKO UDALAK INDARKERIA
MATXISTAREN AURREAN JENDAURREKO ERANTZUNA
EMATEKO PROTOKOLOA**



SARRERA

Vitoria-Gasteizko Udalak Indarkeria Matxistaren aurrean Jendaurreko Erantzuna emateko Protokoloan (2018) jasotzen den moduan, Protokoloa aktibatu ala ez, Vitoria-Gasteizko Udalak ¹indarkeria matxistaren arloko arretaren inguruan² bildutako datuak jendaurrean aurkeztuko ditugu sei hilerik behin.

Estatistika orokorrak emateaz gain, informazioaren jarraipena egitea eta berori kontrastatzea erraztuko duen tresna praktikoa izan nahi du txosten honek. Halaber, ahulguneak eta indarguneak identifikatzea ahalbidetuko du, hobekuntza-lerroak finkatze aldera, eta informazio erkatua emango du, bai konparaziozko azterketak egin ahal izateari begira, bai herritarrei komunikabideetan gehien agertutako kasuez haraindiko informazioa emateari begira; hau da, zifren eta datuen kontakizun bateratu eta erkatua egitea da asmoa. Era berean, indarkeria matxistaren errealitatean sakondu ahal izateko moduko tresnak erantsi nahi dizkiogu txostenari, esku artean ditugun datuetatik eta zifretatik haragoko errealitatea irudika dezagun. Hots, banakako kasuen gaineko informazio zehatzetik harago joango den analisisan zentratu nahi da indarkeria matxistaren problematikaren analisisa.

Gasteizen indarkeria matxistaren arloan egiten den esku-hartzeari buruzko sei hilez behingo txostena egiteko aldagaiak

Berdintasunerako Zerbitzuak egin du txostena, Vitoria-Gasteizko Udalaren Gizarte Politika eta Osasun Publikoaren Sailarekin eta Herritarren Segurtasunerako Sailarekin batera, jasotako datuetatik abiatuta. Udal-informazioa biltzeko sistemen arabera hitzartutako aldagaiak³ txertatzearekin batera, informazio horren sistematizazioa eta azterketa hobetzeko ere balio dute datuok.

¹ Gaur egun, Vitoria-Gasteizko Udalak ez dauka beste erakunde batzuen informazio espezifikorik, indarkeria matxistari buruzko datuei dagokienez. Gizarte Politika eta Osasun Publikoaren Sailak eta Herritarren Segurtasunerako Sailak bildu dute informazioa, Udaltzaingoaren, Alkatetzaren eta Berdintasunerako Zerbitzuaren bidez.

² Txostenaren datuak elkarrekin egingo dituzte Berdintasunerako Zerbitzuak, Gizarte Politika eta Osasun Publikoaren Sailak eta Herritarren Segurtasunerako Sailak, atal honetan jasotzen den informazioarekin eta 3. eranskinean adierazten diren adierazleekin bat eginez.

³ Hitzek hitz eutsi zaie aldagaiei eta adierazleei, programa informatikoetan erregistratzen den bezalaxe.



Hortaz, zifrak eta datuak aztertzeaz gain, indarkeriaren eta horren inpaktuaren arloko politika publikoak hobetzeko neurriak garatzeko konpromisoa hartu du udalak. Honako honetan, lehenengo txostena denez, udalak indarkeria matxistaren arloan egiten duen esku-hartzea hobetzeko aztertuko diren kontu zenbait jaso dira txostenaren amaieran⁴.

Jendaurreko Erantzuna emateko Protokoloan hartutako konpromisoen esparruan egin den lehenengo txostena da hau, eta, beraz, **2018ko urtarriletik urrirako datuak jaso dira, bi hilabete horiek barne hartuta**. 2019tik aurrera, txostenak sei hilez behingoak izango dira.

⁴ Protokoloaren funtzionamenduari buruzko eta kontu emateko txostenaren aldagaiei buruzko informazio gehiago izateko, udalaren webean kontsultatu daiteke dokumentu osoa: <https://v-g.eus/2vtY7kY>



Lehenik eta behin, **datu orokorrak** emango ditugu. Ondoren, zifra horien gainean, ezaugarri espezifikoak buruzko datuak emango ditugu. Azpimarratu nahi dugu ez dagoela ez biktimen, ez kaltegileen profil zehatzik; alabaina, datuak garrantzitsuak dira, informazioa biltzeko sistemak egokitzeari begirako premiak identifikatzeko aukera eta arreta-zerbitzuen nahiz -baliabideen jarraipena egiteko aukera ematen baitigute, bai eta prebentziorako eta sentsibilizaziorako politika publikoen jarraipena egiteko aukera eman ere.

Gizarte Politika eta Osasun Publikoaren Sailak emandako datuen arabera:

- Gizarte Politika eta Osasun Publikoaren Sailak "genero-indarkeria" taldean indarreko arazoa duten **567 emakumeri** eman die arreta.⁵
- Artatutako 567 emakume horietatik, **187 har ditzakegu kasu berritzat**; hau da, kasu horietan, 2018ko urtarrilaren 1etik urriaren 31ra bitartean erregistratu da genero-indarkeriaren taldeko lehenengo arazoa.

Udaltzaingoak igorritako kasuak edota Udaltzaingoaren lankidetzaren bat erregistratuta daukaten kasuak kontuan hartuz gero, honako hau ikus dezakegu:

- Artatutako 567 emakumeetatik, **80 emakumek** daukate **poliziarekin erregistratutako lankidetzaren bat, edota poliziak igorri ditu.**
- Kasu berritzat hartu eta artatutako 187 emakumeetatik, **37 emakumek** daukate **poliziarekin erregistratutako lankidetzaren bat, edota poliziak igorri ditu.**

Zuhurtziaz heldu behar zaio azken datu horri, halakotzat erregistratu ez diren kasu gehiago egon daitezke-eta. Horregatik da lehentasunetako bat informazioa biltzeko sistemak eta erakundeen barrualdeko koordinazio-bideak egokitzea, behar besteko berme juridikoz gurutza daitezzen datuak, arazo larri horren benetako irismena zein den jakin ahal izate aldera.

Familia-nukleoaren eraketari dagokionez, **567 emakume** horiek **649 adingabe** daukate ardurapean (**kasu berri** izendatu ditugun mende daude **649 horietatik 176**). Bi taula dauzkagu azpian: batean, adinaren arabera jaso dira adingabeen kopuruari buruzko datuak, eta, bestean, sexuaren arabera:

⁵ Fisikoa, emozionala, psikologikoa, sexuala, materiala/ekonomikoa, bikotetik kanpoko sexuala, sexu- eta ekonomia-esplotazioa xede duen legez kanpoko trafikoa, bikotekide ohiaren psikologikoa, bikotekide ohiaren fisikoa, segurtasun-indarrek baloratutako arriskua, elkarbizitza berriro hastea genero-indarkeria egonda, sexu-jazarpena eta larderia emakumeei lanean, erakundeetan edo beste toki batzuetan, ohorearen izenean egindako krimenak (hala nola, emakumeen genitalen eta sexuaren ebaketa eta emakumeei kalte egiten dieten bestelako jarduera tradizionalak), adin nagusiko semeek amei genero-desberdinkeriatik ezarritako indarkeria.



Genero-indarkeriaren arloko arazoarekin artatu diren familietan dauden adingabeak					
	0 eta 2 urte artean	3 eta 5 urte artean	6 eta 12 urte artean	13 eta 17 urte artean	Guztira
Kasu ez-berriak	46	79	228	120	473
Kasu berriak	36	43	56	41	176
Guztira	82	122	284	161	649

Genero-indarkeriaren arloko arazoarekin artatu diren familietan dauden adingabeak			
Berria	Gizona	Emakumea	Guztira
Kasu ez-berriak	254	219	473
Kasu berriak	92	84	176
Guztira	346	303	649

Gizarte Politika eta Osasun Publikoaren Sailera jotzen duten eta genero-indarkeriaren taldeko arazoa duten **emakumeen ezaugarriei** buruzko aldagaiak:

567 emakumeei arreta ematen ari diren unitateak/zerbitzuak:

Zerbitzua/unitatea	Ez-berria	Kasu berria	Guztira
OINARRIZKO GIZARTE-ZERB. UDALAREN GIZARTE LARRIALDIETARAKO ZERB. ONARPEN	276	146	422
GAINERAKO GIZARTERATZEA	6	6	6
ADINEKOAK	49	22	71
HAURRAK	7	3	10
	6	6	6
	42	10	52
Guztira	380	187	567

Artatutako 567 emakumeen familia motak:

Familia mota, multzokatuta	Ez-berria	Kasu berria	Guztira
GURASO BAKARREKOA	154	59	213
NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN	111	41	152
PERTSONA BAKARREKOA	80	57	137
NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABE	15	15	30
BESTE BATZUK	10	9	19
HEDATUA, AHAIDETASUN-HARREMANAREKIN	10	6	16
Guztira	380	187	567

Artatutako 567 emakumeen nazionalitatea (nazionala/atzerritarra):

NAZ / ATZ	Ez-berria	Kasu berria	Guztira
NAZIONALA	203	98	301



ATZERRITARRA	177	89	266
Guztira	380	187	567

Artatutako 567 emakumeen nazionalitatea, multzokatuta:

Nazionalitatea, multzokatuta	Ez-berria	Kasu berria	Guztira
ESPAINIA	203	98	301
HEGO AMERIKA	60	32	92
MAGREB	50	27	77
GAINERAKO AFRIKA	34	10	44
EUROPA	17	9	26
ERDIALDEKO AMERIKA	8	11	19
ASIA	8		8
Guztira	380	187	567

Artatutako 567 emakumeen adina, Gizarte Politika eta Osasun Publikoaren Sailaren adin-tarteen arabera:

Adina	Ez-berria	Kasu berria	Guztira
6 eta 12 artean	1		1
13 eta 17 artean	2	1	3
18 eta 22 artean	11	18	29
23 eta 30 artean	50	25	75
31 eta 45 artean	210	90	300
46 eta 64 artean	84	42	126
65 eta 84 artean	20	11	31
85 eta hortik gora	2		2
Guztira	380	187	567

Artatutako 567 emakumeen adina, Udaltzaingoaren adin-tarteen arabera:

Adina	Ez-berria	Kasu berria	Guztira
14 urte arte	1		1
15 eta 17 urte artean	2	1	3
18 eta 30 urte artean	61	43	104
31 eta 40 urte artean	141	68	209
41 eta 60 urte artean	150	62	212
60tik gora	25	13	38
Guztira	380	187	567

Amaitzeko, 567 emakume horiek genero-indarkeriaren taldean erregistratuta dauzkaten indarreko arazoak jasotzen dituen taula jasoko dugu. Garrantzitsua da aintzat hartzea emakume berberak mota horretako arazo mota bat baino gehiago eduki ditzakeela erregistratuta, eta, hortaz, arazoen kopurua handiagoa dela emakumeena baino:

Genero-indarkeriaren taldeko arazoa	Ez-berria	Kasu berria	Guztira
EMAKUMEARENGAKO TRATU TXAR EMOZIONAL/PSIKOLOGIKOA	233	107	340



EMAKUMEARENGAKO TRATU TXAR FISIKOA	162	65	227
BIKOTEKIDE OHIAK EMAKUMEARI EMANDAKO TRATU TXAR PSIKOLOGIKOA	37	13	50
EMAKUMEARENGAKO TRATU TXAR MATERIAL/EKONOMIKOA	36	12	48
SEGURTASUN-INDARREK BALORATUTAKO ARRISKU-EGOERA	27	11	38
GENERO-INDARKERIA DUTEN HARREMAN SENTIMENTAL ERREPIKATUAK	12	6	18
BIKOTEKIDE OHIAK EMAKUMEARI EMANDAKO TRATU TXAR FISIKOA	10	4	14
EMAKUMEARENGAKO TRATU TXAR SEXUALA	10	3	13
BIKOTETIK KANPOKO SEXU-ERASOA	6	6	12
BIZIKETZA BERRIRO HASTE, GENERO-INDARKERIA EGONDA	5	4	9
ADIN NAGUSIKO SEMEEK AMEI GENERO-DESBERDINKERIAZ EZAARRITAKO INDARKERIA	1	1	2
SEXU-JAZARPENA ETA LARDERIA EMAKUMEARI LANEAN, ERAKUNDEETAN EDO BESTE TOKI BATZUETAN	1		1
Guztira	540	232	772

567 emakume horiek bestelako arazo erantsi hauek dauzkate, genero-indarkeriaren problematikaz gain:

Genero-indarkeriaren taldekoak ez diren arazo erantsiak	Ez-berria	Kasu berria	Guztira
ARAZO EKONOMIKOA	402	144	546
LANERATZEKO ZAILTASUNAK	268	101	369
HAURREN ETA NERABEEN BABESGABETASUNA	283	64	347
BIZIKIDETZAKO DESOREKAK	247	96	343
INFORMAZIO-GABEZIA	233	105	338
DESOREKA PSIKO-AFEKTIBOA	126	43	169
GIZARTERATZEKO ZAILTASUNAK	108	43	151
ETXEBIZITZA-ARAZOA	80	43	123
BITARTEKO PERTSONALAK	96	24	120
OSASUNA	74	31	105
ESKOLARATZEKO ZAILTASUNAK	25	6	31
NORBERAREN AUTONOMIAREN MUGA	18	6	24
BAKARDADEA/ISOLAMENDUA	12	6	18
ETXEKO INDARKERIA	12	3	15
TRATU DESEGOKIA EDO TRATU TXARRAK			
ADINEKOEI EDO MENDEKOEI	2	1	3
ETXEKO ABANDONUA	1	1	2
Guztira	1987	717	2704

Laburpen gisara eta nabarmentzeko ideia modura:

- Bikotekideak emandako tratu txar **emozional edo psikologikoa** da indarkeria mota nagusia; ondoren, tratu txar **fisikoa** dago. Gero, **bikotekide ohiak emandako tratu txar psikologikoa dator, eta, ondoren, bikotekideak emandako tratu txar ekonomikoa.**



- 567 emakume horien familia-nukleoetan, **649 adingabe** daude guztira (kasu berri izendatu ditugunen mende daude 649 horietatik 176).
- Artatutako emakumeen **% 37k** dauzkate **guraso bakarreko** familia-nukleoak.
- artatutako emakumeen **% 54** dira autoktonoak.
- artatutako emakumeen **% 53k 31 eta 45 urte** artean dauzkate, eta **% 19k 30 baino gutxiago**.
- Emakumeek aurrez aurre dauzkaten bestelako arazo erantsiak honako hauek dira, gehien errepikatzen direnen arabera ordenatuta: arazo ekonomikoak eta laneratzeko zailtasunak.

Adierazi beharra dago erregistratzeko eta sistematizatzeko sistemak **"Sexu-joerarengatiko diskriminazioa edo abusua"** izeneko aldagaia duela. Gaur egun, ez daukagu arazo horrekin erregistratu edo artatzen den inor, baina horrek ez du esan nahi, sarrerako arazo nagusia hori izan ez arren, sexu-joeraren eta genero-identitatearen aldagaiak –arreta planifikatzeko orduan– kontuan hartzeko moduko kasurik ez dagoenik. Datuak biltzeko sistema berrikusi behar dela hauteman da, aldagaiak errealitate horri egokitu dakizkion.



Udaltzaingoak emandako datuen arabera:

- Gasteizko Udaltzaingoak **genero-indarkeriaren** eta **sexu-askatasunaren aurkako delituen** taldean indarreko arazoa duten **349 emakumeri** eman die arreta.
- Artatutako 349 emakume horietatik, **134 har ditzakegu kasu berritzat** (2018ko urtarrilaren 1etik urriaren 31ra bitartean erregistratutakoak)
- Horietatik, **27 emakume artatu dituzte sexu-askatasunaren kontrako delituengatik**. Horien artean, sexu-erasoak, sexu-abusuak eta sexu-askatasunaren aurkako bestelako delituak sartzen dira.

Indarreko 349 kasuei buruzko informazioa:

Artatutako biktimen kop. - indarreko kasuak

349tik, guztira

Artatutako emakume biktimen adina (indarreko kasuak)	Kop.
14 urte arte	20
15 eta 17 urte artean	16
18 eta 30 urte artean	95
31 eta 40 urte artean	84
41 eta 60 urte artean	98
60tik gora	20
Adierazi gabe	16

ARTATUTAKO EMAKUMEEN NAZIONALITATEA	Kop.
ESPAINIA	259
HEGO AMERIKA	69
AFRIKA (IPARRALDEA KENDUTA)	8
EUROPAR BATASUNA	1
GAINERAKO EUROPA	3
IPAR AFRIKA	8
ASIA	1

ARTATUTAKO EMAKUMEEN JATORRIA	Kop.
VITORIA-GASTEIZ	325
ARABAKO BESTE TOKI BATZUK	20
KANTABRIA	1
CÁDIZ	3

DESGAITASUNAK	Kop.
DESGAITASUNA DUTEN EMAKUMEEN KASUAK	2
DESGAITASUNA DUTEN USTEZKO ERASOTZAILEEN KASUAK	3
ADINGABEAK ARDURAPEAN *	Kop.
MUTIKOAK	15
NESKATOAK	16

* Kasu batean, 17 urteko adingabea dago. Gainerakoetan, oro har, 5 urte arteko haurrak edo haurtxoak daude.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

NAGUSIAK ARDURAPEAN	Kop.
SEME-ALABAK	3

BESTELAKO ARAZOAK	Kop.
MENDEKO ARBASOAK/ONDOKOAK	6
DROGA- EDO ALKOHOL- MENDEKOTASUNA	13
FAMILIA BARRUKO INDARKERIA	14

Genero-indarkeriaren eta sexu-askatasunaren aurkako delituen biktima diren emakumeen **indarreko 134 kasu berriei** buruzko informazioa (**salaketa bidez erregistratutakoena**):

2018KO KASU BERRIEI BURUZKO INFORMAZIOA

GENERO-INDARKERIA

HILABETEA	Kop.
2018ko urtarrila	11
2018ko otsaila	16
2018ko martxoa	10
2018ko apirila	7
2018ko maiatza	11
2018ko ekaina	11
2018ko uztaila	15
2018ko abuztua	19
2018ko iraila	20
2018ko urria	14
GUZTIRA	134

SEXU-ASKATASUNAREN AURKAKO DELITUA

HILABETEA	Kop.
2018ko urtarrila	2
2018ko otsaila	3
2018ko martxoa	1
2018ko apirila	1
2018ko maiatza	3
2018ko ekaina	1
2018ko uztaila	3
2018ko abuztua	4
2018ko iraila	4
2018ko urria	2
GUZTIRA	24

KASUEN JATORRIA

MOTA	Kop.
EZOHIKO INDARKERIA FISIKOA	34
EZKONTIDEAREN OHIKO INDARKERIA FISIKOA	65
OHIKO INDARKERIA PSIKIKOA	33
EZOHIKO INDARKERIA PSIKIKOA	2

MOTA	Kop.
SEXU-ERASOA	4
SEXU-ABUSUA	9
SEXU-ASKATASUNAREN AURKAKO BESTE BATZUK	11



Sexu-askatasunaren aurkako 24 delituetatik, 18 ebatzi dira.

Bi kasutan, bikotekidea edo bikotekide ohia izan da; bi kasu familia-eremuan gertatu dira; kasu bat lan-eremuan gertatu da, eta, beste kasu batean, etxebizitza bateko maizterra izan da.

Gainerako kasuetan, erasotzaileak ez du biktimarekin aurretiko harremanik eduki.

TOKI MOTA (sexu-askatasunaren aurkako delituak)	Nº
BIDE PUBLIKOA	5
ETXEBIZITZA	5
TABERNA-JATETXEA	3
KIROLDEGIA	3
IKASTETXEA/IRAK.	2
DENDA/ESTABLEZIM.	2
GIZARTE-ETXEA	1
INTERNET	1
KUTXAZAINA	1
OSTATUA	1

Udaltzaingoa genero-indarkeriagatik edo **sexu-askatasunaren aurkako delituarengatik** salaketa jartzen duten **emakumeen ezaugarriak** buruzko aldagaiak:

EMAKUME BIKTIMEN ADINA

Genero-indarkeriaren biktimen adina	Kop.
14 urte arte	5
15 eta 17 urte artean	8
18 eta 30 urte artean	33
31 eta 40 urte artean	44
40 eta 60 urte artean	24
60tik gora	2
GUZTIRA	116

*18 kasuak dira epaitegirako izapide informatiboak

Sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimen adina	Kop.
14 urte arte	8
15 eta 17 urte artean	1
18 eta 30 urte artean	7
31 eta 40 urte artean	7
40 eta 60 urte artean	4
60tik gora	0
GUZTIRA	27

*24 kasu erregistratuta, 27 biktima guztira

EMAKUME BIKTIMEN NAZIONALITATEA

BIKTIMEN NAZIONALITATEA	Kop.
ESPAINIA	66
HEGO AMERIKA	25
AFRIKA (IPARRALDEA KENDUTA)	8
EUROPAR BATASUNA	1
GAINERAKO EUROPA	4
IPAR AFRIKA	11
ASIA	1

BIKTIMEN NAZIONALITATEA	Kop.
ESPAINIA	21
HEGO AMERIKA	4
AFRIKA (IPARRALDEA KENDUTA)	1
EUROPAR BATASUNA	1

EMAKUME BIKTIMEN JATORRIA

BIKTIMEN JATORRIA	Kop.
VITORIA-GASTEIZ	106
ARABAKO BESTE TOKI BATZUK	8
KANTABRIA	1
CÁDIZ	1

BIKTIMEN JATORRIA	Kop.
VITORIA-GASTEIZ	27



- **97 kasutan, salaketa batetik abiatuta** hasi da prozedura (**oro har, biktimak** jarritako salaketatik); gainerakoetan, Udaltzaingoaren patruilek esku hartu ondorengo ofiziozko izapideak izan dira.
- **Genero-indarkeriaren biktimek salaketa jarri nahi ez dutenean** eta ofiziozko salaketarik ez dagoenean, **segimendu-espedientea** irekitzen da, eta artatzen diren indarreko kasuetan sartzen dira horiek.

Ustezko erasotzaileen ezaugarriei buruzko informazioa:

USTEZKO ERASOTZAILEEN ADINA

Genero-indarkeriaren erasotzaileen adina	Kop.
14 urte arte	0
15 eta 17 urte artean	7
18 eta 30 urte artean	40
31 eta 40 urte artean	38
40 eta 60 urte artean	37
60tik gora	6
GUZTIRA	128

Sexu-askatasunaren aurkako delituen erasotzaileen adina	Kop.
14 urte arte	2
15 eta 17 urte artean	0
18 eta 30 urte artean	3
31 eta 40 urte artean	8
40 eta 60 urte artean	5
60tik gora	2
GUZTIRA	20

USTEZKO ERASOTZAILEEN NAZIONALITATEA

ERASOTZAILEEN NAZIONALITAT.	Kop.
ESPAINIA	68
HEGO AMERIKA	22
AFRIKA (IPARRALDEA KENDUTA)	6
EUROPAR BATASUNA	4
GAINERAKO EUROPA	1
IPAR AFRIKA	23
ASIA	4

ERASOTZAILEEN NAZIONALITAT.	Kop.
ESPAINIA	12
HEGO AMERIKA	4
AFRIKA (IPARRALDEA KENDUTA)	2
EUROPAR BATASUNA	1
ASIA	1

USTEZKO ERASOTZAILEEN JATORRIA

ERASOTZAILEEN JATORRIA	Kop.
VITORIA-GASTEIZ	114
ARABAKO BESTE TOKI BATZUK	7
KANTABRIA	2
GIPUZKOA	1
BIZKAIA	1
ERRIOXA	1
BURGOS	1
MADRIL	1

ERASOTZAILEEN JATORRIA	Kop.
VITORIA-GASTEIZ	17
ARGENTINA	2
FRANTZIA	1



Intereseko beste datu batzuk:

BABES-AGINDUA HAUSTEAGATIKO ATESTATUAK	46
UDALTZAINGOAK GENERO- INDARKERIAGATIK EGINDAKO ESKU-HARTZEAK	169

Laburpen gisara eta nabarmentzeko ideia modura:

- 2018ko azarorako, **349 emakumeri eman zaie arreta** genero-indarkeriagatik edo sexu-askatasunaren aurkako delituengatik. Horietatik, **genero-indarkeriaren kasu berriak** izan dira **134**, eta **24** izan dira **sexu-askatasunaren aurkako** delituak.
- Artatutako 349 **emakume horiek 31 adingabe dauzkate beren kargura**, eta, gehienek, 5 urte baino gutxiago dauzkate.
- Genero-indarkeriaren barruan sartu diren **134 kasu berrietan**, bikotekidearen ohiko indarkeria fisikoa egon da 65 kasutan, eta ezohiko indarkeria fisikoa 34tan. Hau da, **kasu berrien % 73k indarkeria fisikoa** izan dute (**ohikoa nahiz ezohikoa**).
- **Sexu-askatasunaren** aurkako kasu **gehienak sexu-erasotzat** tipifikatu dira; horien atzetik, **sexu-abusotzat** hartutakoak datoz.
- Udaltzaingoak **46 atestatu** izapidetu ditu **babes-aginduak hausteagatik**, eta genero-indarkeriaren **169** kasutan **hartu du esku**.

Artatutako emakumeen ezaugarri orokorrei buruzko datu batzuk hemen:

- artatutako emakumeen **% 37k 31 eta 40 urte** artean dauzkate, eta **% 39k 30 baino gutxiago**. Hots, generoko/etxeko indarkeriagatik artatutako emakumeen **% 76k 40 urte baino gutxiago** dauzkate.
- **Sexu-askatasunaren aurkako delituei** buruz, nabarmendu beharra dago horien **% 30 14 urtetik beherako emakumeei** egin zaizkiela.
- Genero-indarkeriagatik artatu diren emakumeen **% 57 autoktonoak** dira, eta, **sexu-askatasunaren aurkako kasuetan, % 78ra** igotzen da ehunekoa.

Ustezko erasotzaileen ezaugarri orokorrei buruzko datu batzuk hemen:

- **Genero-indarkeriaren erasotzaileen % 37k 30 urte baino gutxiago** dauzkate.
- **Sexu-askatasunaren aurkako erasotzaileen % 75ek 30 urte baino gehiago** dauzkate.
- Nabarmentzekoa da **sexu-askatasunaren kontrako bi erasotzailek 14 urte baino gutxiago** dituztela.
- **Genero-indarkeriaren erasotzaileen % 53 autoktonoak** dira; **sexu-askatasunaren kontrako erasotzaileen** artean, berriz, **% 60** dira autoktonoak.



Adierazteko modukoa da Udaltzaingoaren erregistro- eta sistematizazio-sistemak **ez duela sexu-joeragatiko edota genero-identitateagatiko gorroto-delituzko kasu bakar bat ere erregistratu** 2018an. Sei izan dira gorroto-delitu gisa tipifikatutakoak: hiru arraza/etniagatik, bi ideologia politikoagatik eta bat arrazoi erlijiosoengatik. Aldagai hori aztertzeari begira, datuak biltzeko sistema berrikusi behar dela hauteman da, sexu-joeragatiko edota genero-identitateagatiko gorroto-delituek LGTBI pertsonen errealitatearekin eta premiekin bat egin dezatela bermatzeko xedez; hau da, tratamendua eraginkorragoa izan dadin.

Urteak eman duen honetan, **hiru emakume hil dituzte indarkeria matxistaren ondorioz**: bi Gasteizen, eta beste bat Arabako lurraldean: Maria José Bejarano eta haren ama Florentina Jimenez lehenengoaren bikotekide ohiak hil zituen, martxoaren 20an. Bestetik, Sophia Lösche gazte alemana Asparrenetik hurbil dagoen gasolindegibatean hil zuten, eta bertan utzi, ekainean.

Bestalde, Vitoria-Gasteizko Udalak lau aldiz aktibatu du **Indarkeria Matxistaren aurrean Jendaurreko Erantzuna emateko Protokoloa**: Hiru aldiz eraso matxistengatik (horietako bat Andre Mari Zuriaren jaietan jazotako sexu-erasoagatik), eta hilketa matxista bikoitzarengatik beste batean.



- **Lehentasuna eman behar zaio informazioa biltzeko sistemak eta erakundeen barrualdeko koordinazio-bideak aztertzeari**, behar besteko berme juridikoz gurutza daitezen datuak, Vitoria-Gasteizko Udalean artatzen diren indarkeria matxistaren kasuen benetako irismena zein den jakin ahal izate aldera.
- Udaltzaingoak datuak biltzeko duen sistema berrikusi behar da, **gorroto-delituen** aldagaia egokitzeko, modu tipifikatuan erregistra daitezen horiek, sailkapena arintze eta objektibizatze aldera.
- Gizarte Politika eta Osasun Publikoaren Sailak datuak biltzeko duen sistema berrikusi behar da, aldagaien sistemak **LGTBI pertsonen** premiei erantzuten ote dien aztertzeko.
- **Berdintasunerako Zerbitzuak**, informazioa eskatzen dutenentzako **sarrerako atea** izaten denez askotan edota indarkeria matxistaren biktimak dagozkien baliabideetara bideratzen dituenek, datu pertsonalik jasoko ez duen erregistroa eramateko konpromisoa hartzen du, kasu guztiak koordinatu eta horien jarraipena egin ahal izateko moduan.
- **Sailen artean bilera egonkorrak** edukitzeko konpromisoa, koordinazioa bermatzeko.
- Vitoria-Gasteizko Udalak ***Hara! Gasteizko Udalaren berdintasunerako politiketan sexu- eta genero-aniztasuna txertatzeko 2018-2021eko agenda*** abiatu du. Tresna horren bidez, finkatu diren xedeak eta hauteman diren premiak garatuko dira; hala nola, arretan eskumenak dauzkaten sailetakoko langileentzako **prestakuntza espezifikoa**.
- Halaber, **erakundeen komunikazioetan indarkeria matxista tratatzeko moduari** buruzko **prestakuntza espezifikoa** ematea pentsatu da, eguneroko jardunean ezar dezaten gero, eta **komunikabideetan** indarkeria tratatzeko moduari buruzko beste prestakuntza bat emango da, Jendaurreko Erantzuna emateko Protokoloan jasotzen diren gomendioetan sakontzeko xedez.
- Txosten hau aurkeztu ondoren, **barne-mailako balorazioa** egingo da, bai lehentasunezko premiak identifikatzeko, bai informazioa areagotzea



ahalbidetuko duten aldagai berriak txertatzea baloratzeko. Era berean, gaiari buruzko premiak eta interesak partekatzeari begira, arloan lan egiten duten kolektibo eta elkarteekin informazioa erkatzeko aukera aztertuko da.

